

Euskararen zuzentasuna: etengabeko dikotomia (iparraldeko) administrazioan

UEUko mintegia

2024-11-13

Aurkibidea

0- Iturriak

Egoera egun eta lehen: zenbait artikuluren aipamenak

1- Arazoak: ziurgabetasuna eragiten baitute

1.1 Erregistro falta: beste hizkuntzek ez dutena

1.2 Arauen eta tresnen ezezagutza

1.3 "Iparraldeko" euskararen aldarrikapena

2- Horrek dakarren eguneroko borroka: kontradiktorearena

2.1 Administrazioan

2.2 Gaitasun agirien atalean

3- Hobetzeko bideak

3.1 sentsibilizatze lana

3.2 Euskarriak sortzea eta formakuntzak antolatzea

0- Iturriak

- EEPren **urteroko proiektu deialdirako argitalpenen laginen analisiak** Euskaltzaindiak eginik
- 2009tik urteroko **EGA azterketak**: Batzorde zientifikoaren zuzenketak eta bateratze saioak
- 2014tik euskara teknikari (Elkargoa, Departamendu Ka), itzultzaile, bizitza sozialeko eta irakaskuntzako partaide eta kideek emandako **itzulpenen baieztapen eskaerak**
- EAEko **Terminologia batzordean** iragandako esperientzia
- Euskal Elkargoarekin egin **lexiko lanketak**
- Euskaltzaindia eta UEUrekin **euskararen zuzentasunari buruz antolatu hainbat ikastaro**
- 2024an Euskal Irratiak eta France Bleu **irratietako saioen entzuketa** 6 adituk eta Euskaltzaindiak analizaturik: irratietako saioen entzuketa 6 adituk egitean agertu dena: inongo euskalkik onartzen ez dituen akatsak zuzentzea dela larrialdia. Gero hedabideek beren estilo liburuak sortzeko irizpideak berantagoko utz daiteke.

Euskaltzaindiaren 137. araua: Adierazpena Euskalkien erabileraz irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan

Egoera egun eta lehen: zenbait artikuluren aipamenak

2024-11-13

Itxaro Borda 2024-10-27ko Berrian: *Wesh Maubec Wesh*

(...) iraupenaren baldintzetatik bat oinarrian hibridazioa edo kreolizatzea izatea, auzo hizkuntzei ebasten dizkiegun hitzekin. Ingelesari mailegatzeko zaizkionak frantsesari edo gaztelarari hartzen dizkiegunak baino hobekiago ikusiak (...) hizkuntza aztertzaileen edo irakasleen ereduak burrustan gainditzeko ditu. Gainerako mintzairaren parekoa da horretan. (...) Badira gurean, "erran" errore bat dela uste dutenak eta "esan" baliatzen hasi direnak, edo 'J' delakoak jota gisa ahoskatzeari ekiten diotenak.

Nikolas Goñi 2024-10-21eko Enbatan: *Helduak, ikas zazue euskaraz idazten*

Islandiako gazte gero eta gehiagok hainbertze ingeles ikus-entzuten dutela eta, islandieraz mintzatzean esaldiak ingelesezko moduan osatzen hasi dira, eta islandierazko hitzak ahanzten hasi ere, (...) Bertako soziolinguistak kezkatuak dira hizkuntza horren biziraupenari buruz. Islandiera baino hiztun askoz gehiago dituen finlandiera ere ez da eragin horretatik babestua (...) Euskara irakasle gutiegik ere euskaraz irakurtzen dute, eta beraz gutiegi ikasleei euskaraz irakurrarazten. Arnasgune ginenean hori ez zen arazoa, ahozkoan nahiko indartsu bizi baitzen hizkuntza. Baina gaur egun ahozkoa ez da aski, azken hamarkadetakako erdarazko tsunami luzearen azpian euskal hiztunek gaitasuna galtzen dute. Horri aurre egiteko, ahozko gaitasunari idatzizkoa gehitu behar zaio. Alfabetatu, irakurri (egunkariak, astekariak, blogak, eleberrak...), idatzi (mezularitzetan, sare sozialetan, blogetan, zergatik ez liburu bat...), erdara ezberdinekoen artean mintza, eztabaida, podkastak grabatu, eta horren bitartez oraindik hainbertze eskas zaizkigun elkarren arteko erreferentziak indartu, eta berriak sortu.

Céline Mounolen liburua: *"Iparrorratza: kalko eta huts ohikoenen saihesteko bidelaguna"*
(argitaratze bidean)

UEUko mintegia: Euskararen zuzentasuna: etengabeko dikotomia
(iparraldeko) administrazioan

1- Arazoak: ziurgabetasuna eragiten baitute

(euskara(z) ikasi behar dutenei bereziki, baina ez bakarrik!)

1.1 Erregistro falta: beste hizkuntzek ez dutena

- Karrikan edota gizarteko guneean euskara ondoko hizkuntzez bustirik baliatzen da, kalko okerrak eginez ere maiz ("nori da orain?"-noren txanda da). Idatzian ahozkotasunaren hainbat aztarna gelditzen da ere (Hitzak sortzeraino "piztaxa"...). Aberastasuna izan liteke...
- Arazoa bilakatzen da euskarri edo egitura **eredugarriak** izan behar direlarik, ahozkoan bezala egin ohi baita, usu pentsatuz forma hori euskalkiari lotua zaiola.

1.2 Ezjakintasuna, arauen eta tresnen ezezagutza: laxoegi/zorrotzegi jokatzeari

- Batuak hiztegi mailan euskalki guzietatik edaten du, baina grafia, idazteko manera, arautua dena da: Euskaltzaindiaren hiztegiakoa, arauetan dena.
- Euskaltzaindiaren hiztegian ez bada, "oraino" ez dela pentsa daiteke: gaurko beste hiztegietan baldin bada, baliagarria da; bereziki Euskaltzaindiaren hiztegiak ez baliatzea erraten ez badu.

1.3 "Iparraldeko" euskararen aldarrikapena: non da lapurtera? zein zuberera?

- "Iparraldeko batua" osatzeko, baxenabarrerako aditz edo erran-molde batzuk sartuz (gira, zira, dakot...) ingurune jasoan ezin urrunago joanez eta aldi berean iparraldean tradizioz ez dutenak (gorde/bildu, azkar/laster, jarri/ezarri, arlo/alor, ...), baliatzearekin nahasketa ederra sortzen da. Edota "iparraldekotzat ematea" euskalki guzietan baliatzen diren ahozko formak: *nun, nere, batzutan, kontutan, sekulan, testo, 24ean...* edo forma ez hain jasoak: medaila, inportantzia...
- Lapurterako formak akats gisa ematea edo batere ez baliatzea eta zubererako ahoskeran eta hiztegian ezezagutzagatik gaizki baliatzea

Gaur egungo dikotomia adibide bat:

Lucien etxezaharreta 2024-10-24ko Berrian: «*Ikusten dut idazle berriei inposatzen zaiela estilo berri bat, Hegoaldetik*»

(...) Gure artean irri egin dugu joan den egunean, Euskaltzaindiak portzierto hitza onartu zuela, adibidez; espainoletik atera espresabide herrikoiak gazteek erabiltzen dituztenak dira. Inpresio ezkor bat dugu Iparraldea pixka bat ahantzia dela, baina gure kulpaz bistan dena. Hemen hitza hartzea literaturan zailago baita, irakurlegoagatik, eta jakina, euskararen ahulezia guziengatik.”

Anjel Lertxundi Berrian: «*Bada kezka bat, idazleak ez diola ematen hizkuntzari itzultzaileak ematen dion garrantzia*»

(...) Kontuan hartu, bestalde, itzultzaile eskolan euskara bera ere gai nagusia dela, eta horri garrantzia ematen zaiola. Idazleak ez du hori: haren eskola irakurketa da, ez da inoiz eskola batetik pasatu idazle izateko.”

2- Horrek dakarren eguneroko borroka: laurdenkatuak gara

Etengabeko kontradiktorearena (deabruaren abokatu) egin beharra

2.1 Administrazioan

- Iparraldean:
 - Ezjakintasunak eragiten dituen kalko oker eta ahozotasunaren eraginetik, erregistro formalera pasarazteko borroka, itzultzaile, azterketari eta lankideekin.
 - Alor teknikoenean, terminologian sinonimoak, eta bereziki teknologia berrietan geosinonimoek sentsurik ez dutela ulertaraztea. Arazoak konpontzen saiatzea termino horiek hitz arruntez osatuak direlarik...
- Hegoaldean:
 - Terminologia batzordean adibidez iparraldeko formak oroitaraziz, osatzen saiatzea termino horiek hitz arruntez osatuak direlarik;
 - Administrazioako testuetan (tresna partekatuetan bereziki) iparraldean ulergaitzak edo erabilgaitzak diren lexiko eta formak saihestaraziz, bereziki beste erranahiak dituztelako: konpromiso, agian, ondo, beste (bezainbeste)...

2.2. Euskara gaitasun agirien alorrean

- Azterketariei eta beren formatzaileei zuzentasunaren aldeko mezua etengabe pasaraziz C1 eta B2ren arteko tartea oroitaraziz
- Batzorde zientifikoan malgutasuna eskatuz azterketarien gaztetasunak ematen duen heldutasun eskasa eta beraz aberastasun eskasa kontuan hartzeko

3- Hobetzeko bideak:

3.1. Ereduak hobetzeko beharraren **sentsibilizatze lana**: atxikimendua sortzeko eta ziurgabetasuna kentzeko

- Gaurko saioa: ondorio simple eta argiak ateratzea, denek partekatzeko gisakoak
- Hedabideak
- Helduen euskalduntzea eta irakaskuntza orokorrean
- Elkargoa, Herriko Etxeak...
- ...

3.2. Euskarriak sortzea eta formakuntzak antolatzea

- Tresnei buruzko formakuntzak profesional/sortzaile guzientzat
- Gertatzen diren arazo nagusiei buruzko euskarri errazak sortzea
- **Umorea eta jokoaren bidez egitea**: bideo euskarriak, "Kerman mintzalaguna" edo "Wazemank" bezalako adibideak
- Hedabideak:
 - Entzuketatan oinarrituz irratiei euskarri idatziak ematea eta formakuntza antolatzea aurreikusia da.
 - Beste hedabideen behaketa beharko litzateke sentsibilizatzeko eta nahi balute formakuntzak emateko
- **Irakaskuntzan**: Lehen mailako irakasleak eta kolegio eta lizeoetakoak aurten 3. aldiz: 2022: 9 parte hartzaile/20 izen emate; 2023: 15 parte hartzaile; 2024: 22 izen emate (hasi berria)

Milesker

Naroa Gorostiaga Barriola
Baionan 2024ko azaroaren 13an